



Flamenko margolaria: Emozioei buruzko ipuinak. Un cuento sobre las emociones

Bazen behin margolari bat. **Flamenko zuen izena** eta Andaluzian bizi zen.

Azken bolada honetan, margolaria oso kezkatuta zegoen ideia gabe geratu zelako. Gizajoak ez zekien zer **margotu!** Eta orain koadro guztiak grisez bukatzen zirelako.

—Baina, zer gertatzen ari da?— pentsatu zuen Flamenkok.

Érase una vez que se era un pintor **llamado** Flamenko que vivía en Andalucía. **En la última época**, el pintor estaba muy preocupado porque se había quedado sin ideas.

¡El pobre no sabía qué **pintar!** Además, ahora todos los cuadros terminaban siendo grises.

—Pero, ¿qué está pasando?— pensó Flamenko.

Bere lagun bati, **dortoka** jakintsuari, kontatu zion gertatzen ari zitzaien

—Flamenko, zuri gertatzen zaizuna jende askori gertatzen zaio. Ez dakizu zure emozioak identifikatzen eta horregatik orain koloreak ere txarto nahasten dituzu eta zure **margolan** guztiak grisak gelditzen zaizkizu.

—Ah... eta zer egin ahal dut? Ni...margolaria naiz! Koloreak behar ditut!

—Baita emozioak ezagutu ere, lagun.

Eta momentu horretan bere emozioak **ezagutzeko abentura** hasi zen.

El pintor le contó a su amiga **Tortuga**, la sabia, lo que le estaba pasando.

—Flamenko, lo que te pasa a ti, le pasa a mucha gente. No sabes reconocer tus emociones y por eso ahora mezclas mal los colores y tus **cuadros** terminan grises.

—Ahhh...¿y qué puedo hacer? ¡Yo soy pintor y necesito los colores!

— Y también necesitas conocer tus emociones, amigo.

Y en ese momento comenzó la **aventura de descubrir** las emociones.

Bidea hartu eta topatu zuen lehenengo gauza su handi bat izan zen. Sua **ikaragarria** zen.

Itzela.

—Flamenko... geldi!!! Zure koadroak margotzeko kolore gorria beharko duzu, ezta?

—Ummm, bai, **noski**.

—Baina kolore gorria **zuek ez duzu merezi**.

—Eta zergatik ez?

—Koloreak **menperatzeko** pertsona jakintsua izan behar duzulako.

—Jakintsua?

Emprendió el camino y lo primero que se encontró fue a Fuego. Un fuego muy grande, **tremendo**, terrible.

—¡Flamencooo! ¡Quieto! Para pintar tus cuadros necesitarás el color rojo, ¿no?

—Ummm, sí, **claro**.

—Pero **tú no te mereces** el color rojo.



—¿Y por qué no?

—Porque para **dominar** los colores necesitas ser una persona sabia.

—¿Sabia?

—Zure emozioak eta sentimenduak ondo ezagutu behar dituzu eta zu ez zara **gai hori egiteko**

— Nola ezetz?

—Entzun duzuna. Ez zarela gai.

Flamenkok ez zuen ezer erantzun eta **isilik geratu** zen.

—Eta orain, zer sentitzen duzu?— galdetu zion Suak.

—Ba... haserrea! Zuk **esan duzunak haserretu egin nau!**

—Oso ondo, Flamenco. Ulertu duzu. Sentitu duzuna **haserrea** izan da. Nik apropos haserretu zaitut, baina beste batzuetan haserretuko zara eta kontrolpean izan beharko duzu. Hala ere, saiatzeagatik, kolore gorria emango dizut.

—Mila esker, Sua!!

—Tienes que conocer bien tus emociones y sentimientos.

Y tú **no eres capaz de hacer eso.**

—¿Cómo que no?

—Lo que oyes. No eres capaz.

Flamenco no le contestó nada y se **quedó en silencio.**

—Y ahora, ¿qué es lo que sientes?— le preguntó Fuego.

—**¡Enfadado!** ¡Lo que me has dicho tú **me ha enfadado!**

—Muy bien, Flamenco. Lo has entendido. Lo que has sentido es enfado. Yo ahora te he enfadado a propósito, pero otras veces te enfadarás y deberás aprender a controlarlo.

Sin embargo, por **el esfuerzo** que has hecho te voy a dar el color rojo.

—¡Gracias, Fuego!

Eta Flamenkok bere bidea jarraitu zuen.

Bat-batean bero handia sentitu zuen. Jertsea burutik atera zuen eta berriro begiak **irekitzean harrituta** geratu zen. Eguzkia zegoen bere aurrean!

—Kaixo, Flamenco! — esan zion eta musu bero asko eman zizkion

—**Suposatzen dut** zu horiaren jabea izango zarela

—Jabea, sugea, paregabea, zure ilea— erantzun zion Eguzkiak.

—Baina zer zorokeria esaten ari zara? — esan zion barrezka Flamenkok

—Zu horiz margotzen! Nola sentitzen zara?

—Ba...oso ondo, alai nago. **Irribarrea atera** didazu zure esaldi arraro horrekin.

—Hori da, Flamenco. Sentitu duzuna **alaitasuna** da. Margo hori hau irabazi duzu.

Y Flamenco continuó con su camino. De repente sintió mucho calor. Se sacó el jersey por la cabeza y **al abrir** de nuevo los ojos se quedó alucinado. ¡El Sol estaba delante de él!

—¡Hola Flamenco!— le dijo, y le dio muchos besitos.

—**Me imagino** que tú eres el dueño del amarillo...



—Dueño, serpiente, excepcional, tu pelo *(Esto son palabras que en euskera riman, pero que juntas no tienen sentido)*

—¿Pero qué tontería estás diciendo? —le dijo Flamenco **riendo**.

—¡Te estoy **pintando de amarillo!** ¿Ahora cómo te sientes?

—Pues..... muy bien, alegre. **Me has sacado la sonrisa** con la frase tan rara que has dicho.

—Eso es, Flamenco. Lo que has sentido es **alegría**. Has ganado esta pintura amarilla.

Flamenco Eguzkiarekin egon ostean bero zegoen eta bainu bat hartzera joan zen. Bidean **urrutitik** zetorren **negar** bat entzun zuen eta hara **abiatu** zen. Ibaia **negar batean** zegoen.

—Kaixo Ibaia! Baina zer gertatzen zaizu?

—Utzi bakean margolaria! Zuk **ez zenuke inoiz ulertuko!**

—Kontatzen badidazu, agian lagundu ahal dizut.

—Ba... Itsasoa ni baino handiago da eta gainera nirekin oso arrain gutxi bizi dira...

—Baina zuk harri asko dituzu eta **ur geza** duzu. Nik zurekin **primeran pasatzen dut!**

—Egia da...triste nago baina **tristura** gabe, ez dago alaitasunik. Mila esker!

Eskerrak emateko, kolore urdina eman zion.

Flamenco, después de estar con Sol tenía mucho calor y fue a darse un baño.

Por el camino escuchó un **llanto** que venía **de lejos** y se **dirigió** hacia allí.

El Río era quien estaba **llorando a lágrima viva**.

—¡Hola Río! ¿Qué es lo que te pasa?

—¡Déjame en paz, pintor! ¡**Tú nunca lo entenderías!**

—Si me lo cuentas, quizás **te puedo ayudar**.

—Pues... el Mar es más grande que yo y conmigo viven muy pocos peces...

—Pero tú tienes más piedras, ¡y tu **agua es dulce!** ¡Yo contigo siempre lo paso **genial!**

—Es verdad...estoy triste.. pero sin **tristeza** no hay alegría. ¡Gracias!

Y para **darle las gracias** le dio el color azul.

Ze pozik zegoen Flamenco! Berrero bidea hartu eta **bat-batean** dena **ilunpean** geratu zen.

Gaua egin zen eta margolariak ez zeukan argirik.

—Flamenco!!!!!!!!!!!!— oihukatu zuen Gauak.

—Bai?? Nor zara??

—Ni Gauaaaaaa naiz. Buuuuhh!!

—Ahhhhh! — **ikaratu** zen Flamenco.

—**Beldurra** duzu, ezta?

—Bai, baina badakit beldurrak txikia egiten nauela.

—Horixe Flamenco, eta gainera, gogoratu beldurra **koldar hutsa** dela. **Tori**, hemen daukazu kolore beltza.



¡Qué contento estaba Flamenco! Volvió a tomar el camino y **de pronto** todo se quedó en **tinieblas**. Se hizo de noche y el pintor no tenía luz.

— ¡¡Flamenco!!!!!!!!!! — gritó Noche.

— ¿¿Sí?? ¿¿Quién eres??

— Yo soy la Nocheeeee. Buuhhh!!!

— ¡¡Ahhh!! — **se asustó** Flamenco.

— Tienes **miedo**, ¿no?

— Sí, pero sé que el miedo me hace pequeño.

— Eso es. Y además, recuerda que es un **completo cobarde**.
Toma, aquí tienes el color negro.

Flamenkok bere abentura jarraitzeari ekin zion baina oso nekatuta zegoen.

Baso batera heldu eta han entzun zuen ahots bat:

— Ommmm, Ommmm...

— Parkatu, Zuhaitza. **Lagunduko didazu?**

— Egin nirekin. **Arnasa hartu** sudurretik eta orain ahotik bota.

Eta Flamenkok errepikatu zuen. Orain oso lasai sentitzen zen.

— Flamenko, **urduri** jartzen zarenean arnasa ariketa hau egin ahal duzu eta horrela **baretuko** zara. Lasaitasuna da orain sentitu duzuna. Nire aholkuaz gogoratzeko kolore-berdea oparituko dizut.

Flamenco siguió con su aventura, pero estaba muy cansado.

Llegó a un bosque y allí escuchó una voz:

— Ommmm, Ommmm...

— Perdona, Árbol. **¿Me puedes ayudar?**

— Haz conmigo.. **Coge aire** por la nariz y suelta por la nariz.

Y el Flamenco lo repitió. Ahora se sentía muy tranquilo.

— Flamenco, cuando te pongas **nervioso**, puedes hacer este ejercicio de respiración y así te **calmarás**. Lo que has sentido es tranquilidad.

Y para **que recuerdes** mi consejo, te voy a regalar el color verde.

Orain Flamenko berriro **margotzeko prest** zegoen, bere emozioak ezagutzen zituen! Gorria:

haserre. Horia: alaitasuna. Beltza: beldurra eta Berdea: lasaitasuna.

Hala eta gutiz ere, koloreak bazituen baina... inspirazioa behar zuen!!

— **Irudimena astintzeko** musika entzungo dut! — pentsatu zuen margolariak.

Ahora Flamenco **estaba listo** para volver a pintar, ¡ya conocía sus emociones!

Rojos: enfado. Amarillo: alegría. Negro: miedo y Verde: tranquilidad.

Sin embargo, tenía los colores... ¡pero necesitaba inspiración!

— ¡Para **agitar mi imaginación** voy a escuchar música! — pensó el pintor.



—Baina edozein musikak ez du balio, **emozioz beteriko** musika izan behar du!!

Eta horrela, inspiratzeko, musika bat sortu zuen bere izenarekin, Flamenko. Andaluzian sortutako musika estiloa.

—Pero no vale cualquier música, ¡tiene que ser una música **llena de emoción!**

Y así inventó una música para inspirarse con su nombre, Flamenco.

El estilo de música nacido en Andalucía.